

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, "Payueta" izeneko VI-10.150 esparruko ehiza aprobetxamenduarena

Pagoetako Administrazio Batzarrak, bilkuran, kontratazio espedientea onetsi zuen Payueta izeneko VI-10.150 ehiza esparruko ehiza aprobetxamendua esleitzeko, lehiaketa publiko bidez.

LEHIAKETA

1. Erakunde esleitzaila: Pagoetako Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea: Payueta izeneko ehiza esparruaren (VI-10.150) ehiza aprobetxamendua.
3. Izapidetzea eta prozedura: presako izapidetzea, prozedura irekia, lehiaketa.
4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: Hiru mila bederatziehun eta laurogeita hamasei euro (3.996,00 euro), BEZa barne.
5. Esleitzeko oinarri irizpideak:
 - Bertako ehiztarien ordezkari eta parte hartzea ehiza esparruaren kudeaketan eta gozamenean: gehienez, 5 puntu.
 - Erantzukizun zibileko polizaren bermeak: gehienez, 3 puntu.
 - Eskaintza ekonomikoa: gehienez, puntu 1.
6. Behin betiko bermea: esleipenaren azken prezioaren ehuneko 5, BEZa aparte.
7. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea: 626431346 telefono zenbakira deituz, iragarkia ALHAOn argitaratu eta zortzi egun naturaleko epean.
8. Errentamendu aldia: hamar (10) urte.

"Payueta" izeneko VI-10.150 ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko sail eskudunak berori berritzeko espedientea onetsi beharko du.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Pagoeta, 2020ko irailaren 16a

Lehendakaria

ALFREDO PINEDO RUIZ